



Gure eskola.com

LA SALLE-LEGAZPI
Ikastetxea



Apirila 2019
79. Alea

Q
Euskadi
2 0 0 6

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus

Familia handitzen



	Editoriala Harremanen aberastasuna	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-15
	Berriak	16-17
	Elkarriketa Jon Aztiria	18-21
	Gure Txokoa Eskutitza Joan Bautista La Sallekoari	22-23
	Erreportaia Ikusmenarekin pentsatzen, taldeka lan egiten	24-29
	Irakasleen txokoa	30-33
	Ikasleen txokoa	34-47
	Familien txokoa	48-57
	Ikastetxea lehen eta orain	58-59
	Zorionak	60-65
	UGLE	66-67
	Kontrazala	68



La Salle Legazpi



@LaSalleLegazpi



LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu



www.instagram.com/lasallelegazpi/

Harremanen aberastasuna

Aitor Macho

Adam Smithi buruz hitz egiten hasi behar naizela esan bezain pronto, gehienoi bere lanik ezagunena etorriko zaigu burura, "Nazioen aberastasuna", hain zuzen ere. Lan horretan, aberastasuna nola lortu eta nola pilatu da gai nagusia; eta lan horregatik, ekonomia modernoaren aita dela esaten da. Izan ere, lan hori bere bizitzako azken urteetan idatzi zuen, baina gutxi dakite zein izan zen eta zertaz hitz egiten duen idatzi zuen bere lehenengo lana: "Sentimendu moralen teoria". Bertan, azaltzen hasten da gizaki ororen lehenengo joera bere burua maitatzea dela (berekoikeria), baina, hortik abiatuta, bere joera hori menperatu eta kontrolatu behar duela, elkar bizitza guztiok guztion kontrako borroka bihur ez dadin. Eta, hortik aurrera, enpatiaren prozesuaren inguruko defentsa da bere lana, non gizakia bestearen lekuan jartzeko gai den, nahiz eta horrekin etekinik ez lortu. Jarraian, lanaren garapenean, sentimendu moralen sorrera eta funtzionamendua azaltzen du: erresumina, mendekua, bertutea, miresmena, korrupzioa, justizia. Baina ez dugu horietaz hitz egingo orrialde hauetan.

Aipatu ditugun Smithen aurreneko bi tesiak lotuta, ondorio bat atera dezakegu: benetako

aberastasuna, kontzeptu materialetik urrunduta, besteekin eraikitzen ditugun harremanetan oinarritzen da eta ez pilatzen ditugun ondasunetan. Testuinguru horretan kokatzen dut betidanik gustuko izan dudana berak idatzitako esaldia: "gure bizitzatik pertsona asko pasatzen dira, baina leku handi bat gure bihotzean oso gutxi batzuk bakarrik lortzen dute". Esaldi samurra, historikoki materialista hartua izan den batek botata, ordea.

Gure eskolan maila desberdinetako harremanak sortu eta eraikitzeak aukera daukagu etengabe. Irakasle, beste langile, ikasle, guraso eta hainbeste ekintzetan gurekin kolaboratzen dutenekin mila egoera gertatzen zaizkigu egunero. Eta egoera horietan guk aukeratu dezakegu gure inplikatzeko modua. Batzuek egote hutsa aukeratzen dute, "tokatzen" zaion zerbait da eta ahal den azkarren eta beraien pertsona eta izatea ahal den gutxien erakusten saiatzen dira egunerokoak "pasatzen". Beste batzuek, profesional zintzoak, beraien eginbeharrak zentzuz eta tajuzbetetzen dituzte, behar diren denbora eta ahalegina (eta gehiago ere bai) dedikatuz, baina, agian, beraien pertsona osoa eskaini gabe, beraien grina atal pribatuan gordez. Beste batzuek beste ehun jarrera eta ñabardura desberdinez jokatu dute, baina nik benetako bokazioari helduta jokatzen dutenen alboan egon nahi dut. Pertsona horiek, bokazionatuak, lehengo profesionalek dauzkaten gaitasun onenak agian ez daukate, baina haien

jarrerak soberan ordezkatzeko gaitasun horiek, egiten dituzten ekintza guztietan beraien izate oso eta sakona eskaintzen dutelako, haien estiloa horixe delako. Haien eskuzabaltasuna ez da mugatzen haien denbora eta haien egitea ematen, gai direlako haien pertsona osoa eskaintzen,

borondate onenarekin. Eta borondate onak, batzuetan asmatzen ez badu ere, beti inor indiferente uzten ez duen eskaintzen duenaren kutsua uzten du, harantzago doan kutsua. Pertsona horiengandik ez duzu aberastasun materialik jasoko, agian lehen kategoriko arrakasta profesionalik ere ez duzu beraiekin bilduko, baina bai bizitza osoan iraungo duten benetako bizipenak.

Izan ere, historian zehar guretzat esanguratsuak diren hezitzaile ospetsuek, Joan Bautista De La Salle edo Juan Bosco, besteak beste, behin eta berriro gogoratzen zuten: benetako heziketa ez da ezagupen on eta piloaz josita dagoena, ez da baliabiderik onenak erabiltzen dituen, baizik eta ikaslearen bihotzera heltzen den hezitzailearen jarrerarena.

Elkarriketa batetik eta ez bere liburu batetik aterata dagoen beste idazle ospetsu baten esaldi batekin bukatuko dugu, garaikidea oraingo honetan: "ez dago ez lagun onik ez lagun txarrik; bakarrik norberak egon nahi duen, egon behar duen pertsonak; gure bihotzean haren etxea eraiki duen jendea" (Stephen King).





8 LA SALLEKO INGURUMEN BATZORDEA

Gure eskolako Ingurumen Batzordea ekintza planari eusteko urratsak ematen hasi da. Lehenengo bilkuraren ondoren eman behar diren pausuak zehaztu eta argitu ziren. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle ordezkariek parte hartu zuten.



16 "BIKOTEKA IRAKURTZEN" gure ikasleen irakurmen gaitasuna hobetzeko erabiltzen dugun proiektua da, bai euskaraz bai gaztelaniaz maila guztietan egiten dena. Ariketa hauek irakurmenaren ulermen eta ahazko adierazpena hobetzeko helburu dute. Era berean, irakaslego eta ikaslegoaren esku metodologia barneratzaileak jartzen dira, ikasketa kooperatiboak eta berdin arteko tutoretzak, besteak beste. Ikasleak, hasierako ebaluaketa baten ostean binaka jartzen dira, bata tutorea eta bestea tutoretzapekoa izanik. Lau testuen ostean bakoitzaren rola trukatzeko da. Erabiltzen diren testuak anitzak, benetazkoak eta ikasleen adinera egokituta daude.



17 DBH 2. mailako ikasleak lau egunetan zehar, abenduaren 17tik 20ra hain zuzen ere, Zestoako Sastarrain Baserri eskolara joan ziren egonaldi euskaratu eta zoragarri bat egitera.

Astelehenetik ostegunera egindako barnetegia euskararen erabilera sustatzeaz eta normalizatzeari aparte, gainerako ikaskideekin loturak sendotzeko gonbitea da, gela barruko betebeharretatik urruntzen diren jarduerak eta esperientziak partekatuz. Ingurugiro paregabe batean neska-mutilek ekintza dibertigarriak egin zituzten, mendi-ibilaldiak bizikletan, arku-tiroa, zaldiketa, Zumaia flychen bisita... Beti bueltatzen dira errepikatuzko irrikitan!



17 Eskola batean pentsatzen dugunean, arbela burura datorkigun materialen artean lehenengoetarikoa da. Txikiek ere haiekin esperimentatzen dute.

Bideoa



17 Zenbat bideo ikusi ditugu haurtxo baten aurpegia limoi bat dastatzen zuelarik? Eta zenbat barre bota ditugu? Txikiekin dena da jolas, hori delako gauza berriak ikasteko bide ederrena.

Bideoa



19 Lehen hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara dauden ikasleak Izartxoko topaketan egon ziren benetan gustura. Hemen bideoa!

Bideoa



23 Ate irekien eguna urtero baliagarria da familiei gure zentroa erakusteko, hezkuntza plana, testuinguru berrietan oinarritutako ikaskuntza, haur-eskola, eleaniztasuna, teknologia berrien apustu irmoa, trukaketak, jangela berriak, psikomotritaterako gela anitza berria, eskolaz kanpoko ekintzak... La Salle Zumarraga jardunaldi osoko ikastetxe baten adibidea da.

Eskolak berezko hezkuntza proiektua du, etengabeko eboluzioan, neska-mutilen beharretara erantzuteko. Gurasoen eta hezitzaileen arteko informazio eta iritzien elkartrukea sortzeko tarte hobezina da, zuzendaritza taldea ere, gurasoen esanetara geldituko da. La Salleren helburua haien hezkuntza eta arreta pertsonalizatua dela aditzera ematea da.





24 Koloretako pilotak eta festa has dadila!!
Bideoa



24 "Zazpi urteetatik aurrera, erabiltzen ez diren konexioak deuseztatu egiten dira, ez dira berreskuratzen."

Estimulazio goiztiarra ezinbestekoa da, horregatik ikastetxeak berritu eta prestatu du areto bat psikomotrizitate ariketak burutzeko. Gela hau handia da eta erabat ekipatuta dago 3-7 urte bitarteko neska-mutilekin senso-neuro-motorraren estimulazioa garatzeko toki ezin-hobea. Pertzepzio sistema eta sistema motorrari ipiniko diogu arreta. Lehen haurtzaro honetan, prozesu hau ondo egiteak oinarri sendoak garatuko ditu haurrengan, inguratzen duen munduarekin duen erlazioari bultzatuz.



30 Lehen hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak zinemara joan dira Albert pelikula ikustera. Urtarrileko egun goibel eta euritsuei aurre egiteko planik onena!



Zientzia eroa saioan uraren tenperaturaren eboluzioa erregistratu dute ikasleek. Gatza bota diote eta horrela ulertu dute era praktikoan zergatik errepideetan gatza botatzen duten izotza dagoenean. Egunerokotasuneko egoeretarako presatzen ditugu ikasleak.



30 Nerabeen alfabetatze emozionala eta emozioen erabilera egokia izaten badira Zinemaskola ekintzekin lantzen diren helbururik garrantzitsuenak. Eskolak eta udalak batera burutzen dituzte ekintza hauek. Bigarren aldi honetan, DBHko 3, 4 eta dibertsifikazioko ikasleek "Hip Hop Hora!" filmea ikusi zuten, genero berdintasuna gaia ardatz izanik.




31 Urtarrilaren hotzak klase barneko sormena pizten du eta haur eskolan elur malutak egiten aritu dira. Momentu polit honek klasea atontzeko ere balio izan zaie.



Edo elkarrekin egiten dugu bakeranzko bidea, edo ez dugu inoiz bidea aurkituko. ♡



30 **BAKEAREN EGUNA**
Pasa den urtarrilaren 30ean, Gandhiren urtemuga zela eta, Bakearen eguna ospatu genuen La Salle ikastetxean. Ekintza hau urtero eta aspaldidanik ospatzen dugu, eta elkarrekin momentu gogotsu bat partekatzen da. Egunean zehar, geletan ekintza ezberdinak burutu ondoren, 11:45ean, ikastetxe osoak ospakizun bat egin zuen, aurtan, patioan HH, LH eta DBHko ikasleek hartu zuten parte "300LaSalle" gaia jorratuz. Urteurrenaren ospakizunei musika jarri genion "ONE HEART, ONE COMMITMENT, ONE LIFE" abestiarekin eta horrekin abiatuta kantatuko zuten ikasle eta irakasle guztiek, manifestua irakurri eta ondoren abestiaren zati baten hiru pentagrama bete zituzten, etapa bakoitzeko bat. Pentagramen jarritako notan irakurri ahal zen ikasleek hautatutako esaldia.





31 XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko da Ormaiztegin dagoen Zumalakarregi Museoa. Garai horrek gizarte, kultura, ekonomia eta politikari lotutako aldaketa handiak izan zituen eta mundu garaikideari hasiera eman zion. Horren harira gure ikaslerik nagusienak, gizarte ikasgaiaren programaren barruan, museora hurbildu ziren bisita gidatu batez gozatzeri haien jakin-mina pizteko eta klasean ikasitakoa borobiltzeko asmoz.



7 Lianen itxura egiten, gure txikiek egiten duten beste ekintza paperak zintzilik izenekoa da. Gela, koloretako oihan txiki bat bilakatzen da eta bikain pasatzen dute.



12 Orain dela pare bat urte antzerkia autatzko ikasgaia bilakatu zen La Salle Zumarragan. Arte honek onura ezberdinak eskaintzen dizkie ikasleei, haien gorputzaren eta ahotsaren lanketa, jendearen aurrean hitz egiteko lotsa bertan behera uztea, memorizazioa... Eskolako ekintza bezala, LHko 5. eta 6. mailako ikasleak Donostiraino joan ziren Adel antzezlanaz gozatzeri. Beraien aurpegiak ikustea besterik ez dago zeinen ondo pasatu duten jakiteko.



14 Plasti-plasta eskuak tenperetan murgiltzearen sentsazioa sentitu dute gure haurrek.



14 La Salleko familia handi hau txikietatik hasten da, beraiek dira etorkizuna eta eskola bizi berritzen dutenak.



16 Eguraldia lagun gure ikastetxeko aisialdiko neska mutilek ezin hobeto pasatu zuten Izartxoko monitore eta arduradunek prestatutako jolas eta ekintza guztiekin. Goiza amaitu zenean, hurrengo topaketa noiz izango zen galdezka ibili ziren. Errepikatzeko modukoa!!
Bideoa



20 Bigarren hezkuntzako azterketak amaitzerakoan ikasleak lasaiago daude, eskolaz kanpoko ekintzetaz beti bezala gozatzeko estresik gabe. Mekanografia haietariko bat da, benetan erabilgarria klaseetako lanak burutzeko.



21 Txikiek eskuekin jaten dute lehenengo momentuetan, baina hila-beteak pasa ahala goilaratxoak ere erabiltzen ikasten dute.



24 Hilabetearen behin edo bitan La Salleko mendi taldea biltzen da gure bazterretaz gozatzeko. Amak, aitak, ikaslek, ikasle ohiek, irakaslek... ikastetxearen partaide ezberdinek bat egiten dute zaletasun amankomun batekin: mendia. Zu ere etor zaitezke!



28 Gure txikiek makiltxoekin jolasten eta noski, ikasten.



7 DBH 4.mailako ikasleak Zelai Arizti kultur aretora hurbildu ziren HiKuru taldeak sortutako Trans-formatzen dokumentala ikusteko. Filmeak transexualitateari buruzko zalantzak eta iluntasunak argitzeko helburua du. Hausnarketa bat egitera gonbidatzen du testigantzak eta egoera ezberdinei buruzko informazioa jaso eta azalduz. Aste horretan zehar klaseetan barrena beste sesio batzuk burutu ziren.



7 Goxo goxo txokolate dastaketa eta goitik behera zikinduta!



8 MARTXOAREN 8A LA SALLEN La Salle Zumarraga ikastetxeak Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko du ekintza ezberdinekin. Bere egutegian martxoak 8 gorriz markatutako data baita, munduan emakumearen egoera zalatzeko ezinbestekotzat hartuz. 11:30tan patioan bilduko dira ikastetxeko partaideak bertan ikasleek asteen zehar landutako gaiari buruzko gogoeta irakurtzeko. Ostean, DBH 4. Mailako ikasle batzuk sortutako dantza bat errepresentatuko dute, lehen hezkuntzako ikasleekin lagunduta. Aurreko asteen, azken kurtsoko ikasleek emakumearen inguruko gaia landu zuten, hausnarketa idatzi eta bideoak sortuz. Horiek guztiak eskola osoan partekatuak izan dira, klaseetako lehenengo orduan lantzen den goizeko gogoetaren barnean.



11 Herrialde ezberdinak ezagutu bai baina haien azaletan jarri ere bai! Horrelako ekintzak hobeto gogoratzen dira.

Bideoa



14 "Horrela ikusten dut nire burua" titulupean aritu dira bigarren hezkuntzako 3.mailako ikasleak HARA saioan, benetan gustora.



Ibili eta ibili garraiobideak ezagutu dituzte gure 2 urteko txikiek.

Bideoa



14 Gure txikien beste esperimendu bat armiarmaren sarea izan da.

Bideoa



15 Martxoaren 15ean Zegamako Andueza baserria bisitatzera joan ziren lehen hezkuntzako 3.mailako neska mutilak.

Goizean, bertan dagoen Enbor Museotik asko ikasi zuten eta gero eguraldiaz gozatzeko mendi buelta bat egin zuten. Lagunen artean beti gustora, begiratu zenbat irribar!



16 IZARTXO TOPAKETA

Bideoa



19 Inauteriak egun batean ospatzen diren arren, askoz lehenago egoten dira ikasle eta irakasle moztarroetan pentsatzen, materialak lortzen bakoitzak berea egiteko baita koreografiak entseatzen ere. La Salle Zumarragan asko gozatzen dugun festa eguna da, neska mutilak girotuta daude eta

sekretupean uzten dute haien moztarroa eguna iritsi arte. Haur eta lehen hezkuntzan hiru aste eman dituzte entseguak egiten gela anitzean. Aurreko egunean, indarrak berritzeko Zumarraga eta Urretxuko udaletxeek txorizo bokadiloak eta laranjak bidali zituzten. HHko jaialdia Beloki frontoian egin zen eta familia

guztiak gonbidatuak izan ziren! Bigarren hezkuntzan ordea, zurrumurruak sumatzen ziren taldeotan detaile bat ere ez deskuiduan ez uzteko, eta azkenean, ikaragarri moztarro polit eta dibertigarriekin agertu ziren eskolan. Giro bikain izan genuen! Giro bikain izan genuen!



19 Bigarren hezkuntzako azken urteko ikasleek La Salle-Berrozpen egon dira, Andoainen, orientazio prozesuaren barruan kokatzen den ekintza burutuz. Ikasleek haien etorkizuna imajinatzen lagungarria da eta bide batez, La Salleko obren arteko lana eta laguntza bultzatzen da eta eskaintzen diren batxilergo, zikloak eta unibertsitatea sustatuz.



20 Hausterreguna kaperan ospatzen dugu urtero, klase bakoitzak ordu erdi batez gogoeta bat egiten du Aitor Machok lagunduta. Momentu lasaia eta berezia izaten da.



21 Pausoz pauso ikasten dute! Eskuekin esperimendatzen ibili ziren beste batean eta orain oinen txanda.

Bideoa



20 6.mailakoek hiru egun ahaztezinaz gozatzeko aukera izan dute Etxarri-Larraunen.

Bideoa



24 Gure mendi taldearen beste irteera hau Lizarragako portu gailurretik Baikuraino. Parte hartu zuten guztiek bistetaz disfrutatu zuten meteorologia erabat lagun izan zuen egun honetan.



25 DBH 4 eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleak ikasturte osoan zehar prestatzen egon diren momentua azkenean iritsi da: ikasbidaia. Bost egun ahaztezin pasatu dituzte Andorran eta Bartzelona aldean. Kirola, turismoa eta denbora libre elkartzeko direnean nahasketa ikaragarria sortzen da, etapa honi agurra emateko ekintza ederra da hau.



1 Zeinen biskosa den gelatina! Eta zenbat gustatzen zaien gure eskolako txikiei. Testurak descubritzeko beste esperientzia bat da hau.

Bideoa



2 Egunero elikagaia daukagu ogia eta nola egiten den ikusi eta ikastera joan dira gure LH 1.mailako neska mutilak. Sari ederra lortuz, egindako ogia labean sartu eta jan!



15 Azkenean iritsi zen frantseseko 3.mailako bederatzi ikasleen elkartrukea. Haien truka-kideak ezagutzeko tartea. Hiru hilabeteotan zehar elkarri bideoak, pasadizoak eta postalak bidali diote hobeto ezagutzeko eta denak elkartzeko gogoa areagotzeko helburuarekin. Bi egun eta erdi Baigorri eta Bidarrain pasa zituzten ekintza ezberdinak gauzatuz, kirol arloak zein turistikoa. Gero gurera etorri eta Zumarraga, Donosti eta Oñatitik pasa ziren. Esperientzia beti labur gelditzen da oso gustuko dutelako.





Gela anitza

Abenduko oporrak hartu aurretik La Salle Zumarragako partaide guztiok estreinatu genuen gure gela anitz berria. Iñigo de Loiola kalean dagoen eskolako sarreraren alboan kokatutako areto berri honen oso aukera ezberdin eta interesgarriak eskaintzen dizkigu. Egunerokotasunean burutzen diren ekintzentzat zein bilkura edo ekitaldi berezientzat, gure areto anitzak mugikortasun murriztutako sarrera badu, berogailuak, baita teknologia berriak ere, ordenagailu, proiektore eta bozgorailuak.

HARA bezalako jarduerak, barnekotasuna garatzeko, edota psikomotrizitatea, txikien garapenerako hain garrantzitsua dena, areto honetan ere garatzen dira orain. Secundino Esnaola Musika Eskolarekin hartutako konpromisoa ahaztu gabe, dantza klaseak urtariletik aurrera erabat egokitutako gela honetan burutzen dira.

Inaugurazio egin zenetik, batzar garrantzitsuak, Asanblada Orokorra bezala, edota matrikulazioko bideoa grabatzeko erabili da zonalde hau gelaren balio-aniztasunak erakargarriago bilakatuz gure ikastetxea.



It's the time

Gure ikastetxean ingeles klaseak hiru urtetako haur eskolatik hasten dira, haur eta lehen hezkuntzatik pasatuz eta bigarren hezkuntzan, ingeles klaseak propio izateaz aparte ikasleek heziketa fisiko ikasgaia atzerriko hizkuntza honetan ere jasotzen dute. Hori dela eta, irakasleagoaren formakuntza jarraia apostua ezinbestekoa da klaseen funtzionamendu eraginkorra lortzeko.

Lakunza hizkuntza zentroaren eta gure ikastetxearen arteko akordio bati esker La Sallen bertan irakasleagoarentzat zuzendutako ingeles klaseak eskaintzen dira.

Batez ere, ahozkoa lantzeko bideratuta dauden klasea hauek talde txiki eta mailakatuetan izaten dira. Gramatika birpasaetzea, baita eduki berriak gehitzea ezinbestekoa da aurrera egiteko, betiere era dibertigarri eta praktikoan. Bi irakasle talde daude bata A2 eta bestea B1 mailan klaseak jasotzen.

Akordio honen bigarren parte maila aurreratutako irakasleentzat, Beasainen dagoen Lakunza zentroan bertan klaseak jasotzea musutruk bada. Bertara gure heziketa fisikoko lankidea, Joseba Angulo, hurbiltzen da.

Formakuntza hau ikastetxeak finantziatzen du eta eleaniztasunaren proiektuaren barruan dagoen ekimena da. Ikastetxearen helburua da datozen ikasturteotan ikasleak hiru hizkuntzetan autonomiaz moldatzea, hiru-eleaniztasuna lortuz, alegia.



Irakurtzearen jolasa

Hizkuntza-berrikuntzen helburua da irakurle eta idazle aktiboak, ondo trebatuak eta helduak hezteak. La Salle ikastetxeetan bereziki sortutako aktibitate ezberdinekin, lehenengo hezkuntzako 3. mailatik gora neska-mutilek irakurketa eraginkorrean lehenengo pausuak ematen dituzte, hain onuragarriak direnak edozein tes-tuinguruan. Kurtsoz kurtso joan ahala ikasleek testu bakoitzari behar den irakurketa egiten ikasten dute, abia-dura onean eta, noski, ulermen maila ezin hobearekin. Irakurketa Eraginkorrek adimenezko lan teknika bereziak erabiltzen ditu, modu berezian bultzatu eta lantzeko: ulermena, intuizioa, abiadura, ikusmen-trebetasuna, oroimena, aurrerapena, etab.

Gure ikastetxean, euskara eta gaztelania koadernotxo klasikoak erabiltzen ditugu, baina azkeneko teknika digi-tal modernoak ere. Irakurketa eraginkorra egunero lantzen da 10-15 minututan, ikasleek kapitulu bat irakurtzen dute eta mota desberdinetako ariketak buru tzen dituzte, ulermena, irakurketa teknika, hiztegia, oroimen eta ikusmen azkarreko ariketak, besteak beste.

Irakurketa ozena La Salleko programa baten bidez egiten da, Eleba deritzona. Honek irakurketa teknika hobetzen du. Havilec beste online instrumentu bat da, non jokuen bidez ikaslearen garapena eta aurrerakun-tzak neurtzen eta kontrolatzen dituen, era onetan, ikasle bakoitzak bere erritmoan maila igo dezake ariketa ludi-koen bidez.

Prozesu honek laguntzen du ikaslearen ulermen ira-kurketan, irakurtzeko gustua ere handitzen du, baina zentroari datu garrantzitsu batzuk ere ematen dizkio, tutore bakoitzak kontrol eta erregistro bat eramaten baitu, izan ere, ikasturte amaieran gurasoei ematen zaie.



Sahara

Aurten ere, "Sahararen aldeko Euskal karabana" martxan jarri eta otsailaren hasieran atera zen Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetara.

Proiektu honen helburu nagusia Saharako errefuxiatuei ahalik eta elikagai gehien eramatea da.

Gure ikastetxean janari bilketa erraldoi eta eskuzabala egin zen urtarilaren 16etik 22ra. Antolakuntzak eskatutako elikagai kilo asko lortu ziren haien artean, azukrea, lekaleak, poterik ez hauskorak direlako, pasta, arroza, atuna eta sardinak oliotan. Emakumeentzako produktu intimoak ere jaso egin ziren.

Gela bakoitzeko tutoreak kudeatu zuen klaseko elikagaien bilketa, gero gure lankide arduraduna Aitor Machok, DBH 4. mailako ikasle talde batekin, denak bildu zituen urtarilaren 23an karabanak eramanez ahal izateko.

Milesker era batean edo bestean lagundu ahal zenuten guztiok, eta beste urteotan bezala, berriro honetan ere aurkeztutako eskuzabaltasun mugagabeagatik.



Hain ondo joan zenez errepikatuko dut!

Jon Aztiria

Besteok laguntzen ditugunean, haien beharretan arreta jartzean, dakiguna partekatzean... Gu geu laguntzen, gure beharrak ikusten eta gure burua hobeto ezagutzen dugu, eta esperientzia horretatik hain zuzen ere pasa izan da uda honetan gure lankidea Jon Aztiria, Argentinako ipar-mendebaldean bizitako esperientzia zoragarriaren partetxo bat gurekin partekatzearen aukera izan dugu.

Zerk bultzatu zintuen horrelako ekintza bolondresa egiteko?

Aspaldi neukan horrelako bidaia bat egiteko gogoia eta uda honetan egoerak laguntzen zidaten, aproposa zen eta denbora neukan.

Zeintzuk ziren zure aurreiritziak ekintza honi buruz? Bete ziren?

Aurreiritzirik, egia esan, ez neukan. Nirekin egon ziren bi bidai-kidek aurretik Bolivian bizitako esperientzia zeukaten, baina neuk, egia esan, ez neukan ideia handirik nolakoa izango zen bidaia eta orduan, joan nintzen

pixka bat “a la aventura”, baina bidaia oso polita izan zen eta asko disfrutatu nuen.


Gogoratzen al duzu zure lehenengo eguna bolondres bezala? Zer motatako harrera izan zenuten zentroan?

Ba bai, gogoratzen dut bai lehenengo eguna! Gu iritsi ginen gauez Jujuyra, Argentinan. Eta hurrengo goizean, han, bolondres udaleku batzuk prestatu zituzten gure bila etorri ziren gazteek. Eta lan egiten genuen barriadara joan ginen goizean goiz, danbor batzuekin gazteak erakartzeko.

Guretzat deigarria izan zen baina oso oroitzapen ona daukat.

Zer izan zen zure arreta gehien deitu zuena?

Ba arreta deitu didaten gauzei buruz ez dakit zer esan dezakedan... Agian, esango nuke, Argentina barruan, bertan dauden jendearen arteko klaseen ezberdintasunak. Orokorrean, biztanleak Jujuy



bizi ziren, baina gu geunden asentamenduan jendea kasi ezer gabe bizi zen. Argentinaren ezberdintasun sozial eta ekonomikoak harritu ninduten.

Esperientzia hau bizi ondoren zein aldaketa suertatu dira zure bizitzan? Eta zure klaseak emateko eran?

Nire ikuspuntua bai gizartearekiko bai ikasleekiko bai aldatu da pixka bat edo bai saiatzen naiz, klaseko momentuak baloratzen edo ikasleei balorazten zein gizarte aurreratuan bizi garen eta daukagun aukera hori nik disfrutatzen eta beraiei disfrutarazten. Hori izango litzateke batez ere sumatu dudak ikuspegi aldaketa.

Besteoi egitea gomendatuko zenioke? Errepikatuko zenuke esperientzia?

Bai, guztiz gomendagarria iruditzen zait esperientzia eta nire inguruko jendearek ere komentatu diet, benetan aberasgarria dela. Bai egia da, opor luzeak behar direla esperientzia aurrera eramateko, zeren eta proiektu bakoitzak lau-bost aste irauten duela eta orokorrean, jendeak ez du hainbeste egun, baina bai iruditzen zait guztiz gomendagarria. Eta errepikatuko dut! Aurten PROYDE fundazioarekin Kenyara goaz, pasa den udan Jujuy egon ginen hiruak eta Zarauzko irakasle bat, hain ondo joan zen aurten ere errepikatzea erabaki dugula!



Anaia baten eskutitza Joan Bautista La Sallekoari

Anai Mikel Arbizu

Uste dut zaila izango dela nire helburua lortzea. Nola idazten zaio santu bati? Nik ez dut inoiz egin. Are gehiago, nora bidaliko dut gutunazala? Jakingo ote dute helbidea postetxean?

Denbora asko igaro da. 300 urte pasatu eta gero, oraindik kostatzen da eskoletako kontu hau ulertzea. Hain lasai bizi zen Reimsen. Nori bururatzen zaio baten etxean jendea biltzea eta maisu izateko formatzea?

Eta Frantzian hezkuntza-zentroak fundatzen hastea, poltsikoan euro bat bera ere eduki gabe. Benetan, zoroa izan behar du batek! Tira, orain kontatuko diot egungo egoera nolakoa den.

Ohorezko La Salle jaun hori:

Zure proposamena jarraitu zuen horietako bat naiz. Utz nazazu zutaz eta ez berorika tratatzen. Bokazioaren kontu hau misterioa da; ez dakit nola azaldu arrazoi guztiak. Portzierto, gaur egun deia zabalagoa da: gure ikastetxeetan maisuekin, gizonezkoekin eta emakumezkoekin partekatzen ditugu lanak eta funtzioak; denak saiatzen gara zuk fundatu zenuena aitzinera eramaten.

Berrogeita hamar urte daramatzat misio honetan eta, zintzotasun guztiarekin, aitortu behar dut ikasleek izugarri irakatsi didatela. Oso kurioa da baina hala da. Ez dakit zer esango duten haiek nitaz.

Batek daki zenbat aldiz ekartzen diguzun gogora gure misioa duina eta garrantzitsua dela. Etorkizunaren erantzuleak garela! Ba, jauna, gaur egun denek ez dute honela pentsatzen. Nire haurtzaroan, maisu baten jokaera oso errespetagarria zen. Familietan zera esaten zen: "irakasleak esan badu ..."; gaur egun ez hainbeste.

Zer esan bestalde ikasketa-planei buruz? Irakurtzeko, idazteko, lau eragiketen eta entziklopediako oinarrikoen gauzak egiteko garaia iragan da. Informatika asmatu zenetik, irakaskuntza proiektuen eta taldeko lanaren bidetik doa, eta balio handikoa da. Taldeko irakaskuntzari buruzko lehenengo urratsak zeuk eman zenituen, bai horixe. Gogoratzen?

Pertsonen aldamenean egoten saiatzen gara, beren sorlekua edo giza maila edozein delarik ere. Honek

jarraitzen du salletar ikurra izaten: ongi tratatzea, begirunez tratatzea eta egonarri handikoak izatea. Azken kontu honetaz biziki ongi asmatu zenuen.


Gauza bera gertatzen da bakoitzaren errealtatea ezagutu behar dugun zera horretaz. Ez da erraza; haiek badatoz eta badoaz; gu gelditzen gara eta, gero eta adinduago, gainera. Ikasleak ulertzea, aholkatzea, entzutea, haien mailara egokitzea. Hain ospetsua den zure "Kristau Eskoletako Gida" altxor eta orientazioz beteta dago, baina Hezkuntza Lege askok ez dituzte ezagutzen. Ministroek irakurriko balituzte...


Gogoetetan ("Meditazioak" deitu zenizkien) egindako gure lanarengatik izango dugun sariaz. Hori dela eta, profeta bihurtu zinen. Txaloak ez dira gure saria, ezta gure dominak edo ohoreak ere... Esatera iritsi zara "gure saria, gure poza eta gure koroa" gure ikasleak, neskak eta mutilak, izango direla. Arrazoi galanta zurea! "Zuen saririk handiena haiek edukatu izana izango da, batik bat, behartsuak edukatu izana".

Aukera hau aprobetxatu nahi dut fabore bat eskatzeko. Ea litekeena den akordio batera iristea gurasoen, sindikatuen, patronalaren eta bestelako ente publikoen artean, nik eskertuko nuke. Zu santua zara, Jainkoaren ondoan bizi zara; esaiozu nire aldetik. Ongi dakit zaila dela. Hortik joan nadinean, hobeto azalduko dizut.

Azken detaile bat, zeren eskutitza zure urtebetezerako iristea nahi baitut: zuk jakitea nahi dut ezen berriro bizitzen hasiko banintz, Salletar Anaia izatea gustatuko litzaidakeela berriz ere.


Besarkada handia eta beroa





Ikusmenarekin pentsatzen, taldeka lan egiten


Plastika eta Gizarteko ikasgaien arteko elkarlaneko lanaren bitartez visual thinking bat egin dute.



Irudi batek hamaika hitzek baino gehiago balio duela esan izan ohi da. Eta Visual Thinking edo ikusmen pentsamendua erreminta berria deskribatzeko esaldirik aproposena da. Klaseak emateko era eraldatuta dagoen garai honetan, non ikasleak haien ikasketa prozesuaren protagonista diren, Visual Thinking-a lagungarri suertatzen da. Hala ere, aldaketa ez da ikaslea eragile nagusi bihurtzean oinarritzen; irakasleek lankidetzan oinarrituriko irakaskuntza bide berria hasten dute, bakoitza bere ikasgaitik abiatuta. Edukiak irakasteko era berri honek edukiak zeharka lantzearen aldeko apustu handia egiten du. Gaur egungo edukiak irakasteko erarekin alderatzen badugu, non ikasgai

bakoitza abiapuntu eta helmuga indibiduala den, dinamika amankomuna lantzen da, egiazko errealitate batera garamatza, lantzen diren edukiak eta jakintzak ez direlako banakoak eta isolatuak; elkarrekin doaz, transferitzen dira, elkarri laguntzen diote, mugitzen eta elikatzen dira.

Paradigma berri honetatik mugitzen dira plastikako eta gizarteko irakasleak DBH 3. mailan. Talde bakoitzeko tutoreak izanda, ordu asko elkarrekin pasatzen dituzte saioak planifikatzen eta ikasleei buruz hitz egiten, zeharkako metodologia honen bitartez landu beharreko edukiak kalitatezkoak izan daitezen lortzeko ezinbestekoa den elkarlana.



"Ikusiz ikasten"

Barneratzen dugun informazioaren bi heren baino gehiago ikusmenetik jasotzen dugu eta gure etapa ezberdinetako irakasleak bat datoz haien azalpenak irudiekin egiten dituztenean ikasleak arreta gehiago ipintzen dute eta motibatuagoak daude, gainera, gerora, azterketa garaia iristen denean, edukiak hobeto gogoratzen dituzte paperean idazteko. DBH 3. mailan erreminta hau erabili dute elkarlanean gizarte zientziak eta plastikako ikasgaietan.


Gizarteko hainbat saiotan lehen eta bigarren sektoreak eta haien ezaugarriak ezagutzen joan dira eta jarraian Visual Thinking teknika erabilia plastikako saioetan mapa bisualak sortu dituzte sormen askatasun osoz.

Marrazten hasteko lehenik eta behin oso garrantzitsua da marraztu nahi den horri buruz pentsatzen aritzea, ideia ulertzea besteek ere uler dezaten. Hori dela eta, ezinbestekoa da edukiak ondo lantzea Visual Thinking sortzen hasi baino lehen.



"La inspiración siempre me pilla trabajando".

Picasso:



Visual thinking

Visual Thinking pentsamenduak edo ideiak irudietan islatzean datza, beraien bitartez transmititu nahi den mezua funtsa jasotzen delarik. Ideiak era egokian antolatzeke eta komunikatzeko tresna eraginkorra da.

Metodologia hau eginez, gozatuz, oharrak sortuz eta besteengan inspiratuz ikasten da.

ABANTAILAK:


- Hizkuntza bisuala unibertsala da eta munduko edozein lekutako pertsonekin konektatzea errazten du
- Jakintzara gehiago gerturatzeko gaitu
- Harreta aktibatzen du
- Ikerketa autonomia pizten du
- Ikasitakoa epe luzarago batean gogoratzen dugu
- Irudien bitartez ikuspegi orokorra era errazago batean lortzen da eta testuingurua begiratu batean ulertzen dugu
- Marrazketak hurrei harreta gehiago jartzen eta ikasiz disfrutatzen laguntzen die
- Sormena sustatzen du
- Garunarentzat erronka da egitura finkorik ez dagoelako

Zeharkako lanak proiektu amankomun bat sortzeko hainbat ikasgai uztartzen dituzten lanak dira.

Proiektu on bat eratzeko jarraitu behar diren urratsak lau dira: behatu, aztertu, irudiztatu eta irakatsi. Behaketa gure ingurua eta inguru hori osatzen duten elementuetan erreparatzean datza, informazioa jasoz, ordenatuz eta filtratuz. Aztertzea aurrekoa baino fase sakonagoa da, non erreportai batean egiten den antzera W5+ galderak nabarmentzen diren, hala nola zer?, nork?, non?, noiz?, zergatik?, zertarako?... Horrela, ikaslea zenbat eta helduagoa izan, galdera gehiago garatzeko eta erantzuteko gai izango da eta sortzen dituen irudiak, eskemak edo mapa bisualak sakontasun handiagokoak izango dira.

Irudiztatzea gure zentzuek sumatzen dutenaz haratago dagoen zerbait da, sormenera heltzea da

Guztiok marrazten badakigu, 40.000 urte daramatzagu marrazten, eta ez daukagu zertan Picasso izan behar ideiak irudi bihurtzeko. Ideiak gogoratzea eta lotzea besterik ez dugu behar. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza aurrera doa ikasgaien banakako antolaketarekin alderatuta. John Dewey pedagogo iparramerikarraren esanetan, jakintza ez da bere kabuz era isolatu batean dagoen zerbait, testuinguru batean txertatuta baitago. Izan ere, esaldi hau guztiz bat dator XXI. mendeko heziketarekin, non ikaskuntza desberdinak




erlazionatzen dituzten pertsonak behar ditugun., taldeka lan egiteko, eraberritzeko, aldaketei egokitzeko eta ondo komunikatzeko gai direlarik.

Gizarte zein plastikako saioetan abiapuntua ikasleek alde aurretik zeukaten jakintza eta beharrianak izan dira. Ikasleak beraiek konturatu dira ikasgaien edukiek elkarren artean daukaten loturaz, guztia erlazionatuta dagoelako. Horrela, ikasgai desberdinetako konpetentzien garapena eta jakintza lorpen esanguratsuak gauzatzen dituzten aspektu kognitiboak, gaitasunak eta jarrerak finkatzen

dituzte. Informazioa sozializatzean eta zabaltzean beraien gaitasun komunikatiboak ere trebatzen dituzte. Eta irakasleei dagokionez, irakaskuntza ez da bakardadean egiten duten planifikazio eta aplikazioa bat; hainbat ikasgaietan Visual Thinking metodologia zeharka erabiliz irakaskuntza bide bilakatzen dute ikasle eta irakasle arteko elkarlanean eta adostasunean oinarritutako amaierako produktu bat sortuz. Honela, ikasgai desberdinak uztartzea ez da asmo bat bakarrik, errealitate bat baizik, gure ikasleen formazio integralari laguntzen dion paradigma pedagogikoa.

Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.



Haur Hezkuntza

Nola jardun umeak kasu egiten ez duenean



Lasai eta eserita jateko beharra

«Es importante que los niños coman sentados, no riendo o corriendo»

Javier Korta Neumólogo pediátrico

Las uvas, los frutos secos, las piezas pequeñas de juguetes, los caramelos, las salchichas o los globos figuran en la lista negra de objetos de riesgo de atragantamiento


ARANTXA ALDAZ

SAN SEBASTIÁN. Las uvas, como la que causó esta Nochevieja la muerte de un niño de tres años en Gijón, son uno de los alimentos de riesgo a la hora de sufrir un atragantamiento, especialmente entre los más pequeños y los más mayores de la casa. En la lista negra aparecen los frutos secos, pero también las piezas pequeñas de juguetes, los lacasitos, los caramelos duros, las salchichas o los globos, que pueden provocar la asfixia si se aspiran por la vía respiratoria. Javier Korta, jefe de Neumología Pediátrica del Hospital Universitario Donostia, llama a no bajar la guardia en estas fiestas, pide a los padres seguir ciertos consejos básicos, «de sentido común, pero sin volvernos locos». Y aprovecha para reivindicar que se extienda el aprendizaje de maniobras básicas de reanimación cardiopulmonar ya desde la escuela y también entre los adultos. «Con unas nociones básicas, se puede salvar una vida», remarca.

¿Son frecuentes los atragantamientos en niños pequeños? – Sí, son frecuentes y un motivo habitual de urgencia en Pediatría. Lo que suele ocurrir es que la mayoría son episodios autolimitados, es decir, se pasan en el momento y ya está. El riesgo está cuando la aspiración de un cuerpo extraño no se resuelve sola.

– ¿Qué hay que hacer en ese caso? – Es muy importante saber lo que no hay que hacer. Si el niño está tosiendo, que siga tosiendo, porque la tos es un mecanismo de defensa y si es efectiva, es capaz de expulsar el cuerpo extraño aspirado. Si esto no ocurre, hay que abrirle la boca y mirar si está el objeto aspirado. Nunca hay que introducir el dedo a ciegas para intentar extraerlo, porque puede empeorar la situación. En el niño pequeño, lactante, se recomienda darle 5 golpes en la espalda sujetando boca abajo y después 5 compresiones torácicas; en el niño mayor serán compresiones abdominales, procediendo a la maniobra de Heimlich, que consiste en, sujetándole por detrás, realizar varias compresiones abdominales en la zona entre el ombligo y el esternón. Y ya si no responde, puede entrar en parada cardiorespiratoria y habría que practicar las maniobras básicas de reanimación cardiopulmonar (RCP).

– Pero para eso ya habría que haber dado aviso al 112 o que hubiera alguien presente con conocimientos de RCP. – No es mal momento para reivindicar que se extienda el aprendizaje de nociones básicas de reanimación cardiopulmonar, ya desde la escuela y entre adultos. Con unos conocimientos básicos, se puede salvar una vida. En otros países, la enseñanza de las maniobras básicas de resucitación, está más implantada. En nuestro ámbito, impulsado por Osakidetza y otras entidades, se están dando cursos, pero debería estar más reglado y sistematizado.



El médico Javier Korta, frente a urgencias de pediatría. :: usoz

– ¿Un globo? – Son casos menos frecuentes pero pueden ser más graves, incluso pueden provocar la muerte. Porque un globo sin inflar se adhiere a la vía respiratoria, alrededor de la laringe, y luego es imposible de quitar. – ¿Qué consejo da ahora que llegan los Reyes cargados de regalos? – La recomendación general es que cuanto más pequeños sean los niños, más grandes deben ser las piezas de los juguetes por el riesgo de que se las metan a la boca. Hay que prestar atención a las etiquetas de los juguetes donde aparecen las advertencias y la edad para la cual están recomendados. En niños pequeños, de menos

no dar frutos secos a niños y niñas por debajo de 4 ó cinco años. Son los cuerpos extraños que más fácilmente se aspiran.

2 Otros alimentos de riesgo de atragantamiento son los caramelos duros, o los alimentos suaves y redondos, como las salchichas, que se recomienda trocear. También las uvas. Las piezas pequeñas de juguetes o los globos también están en la lista de objetos de mayor riesgo para los niños pequeños.

3 En caso de atragantamiento, es importante toser. Si no funciona, darle golpes en la espalda. En tercer lugar, la maniobra de Heimlich (golpes en la boca del estómago) y, ya en caso extremo, proceder a las maniobras de reanimación.

de tres o cuatro años, hay que desterrar los juguetes que se montan con piezas pequeñas, tipo 'playmobil'. – La muerte de un niño por culpa de una uva ha vuelto a recordar la necesidad de extremar la precaución con ciertos alimentos. – La recomendación general es que por debajo de los 4 ó 5 años no se dé a los niños frutos secos, caramelos duros, o por ejemplo las uvas. Y si las das, hay que partirlas en trozos pequeños. Además, parece una bobada, pero los niños tienen que comer sentados, no corriendo o riendo, no hacerles que les entre la risa, que puedan masticar bien. Son consejos de sentido común, no es cuestión de volvernos locos, pero sí de prestar cierta atención. Hay que tener en cuenta, además, que hay aspiraciones de cuerpos extraños que pueden pasar desapercibidas. – ¿Y cómo se detectan entonces? – A veces puede ocurrir que el niño aspire algo y tosa un poco y se le pase, pero que el cuerpo extraño haya quedado en la vía respiratoria. Al cabo de semanas o meses, empieza a manifestarse en forma de bronquitis o neumonías repetidas, hasta que se identifica el causante.

Haurraren adina kontatuta izanda diziplina baikorra martxan jarri



Lehen Hezkuntza

Teknologia berrien erabilpenaren arauak haur eta gurasoentzat



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


BIO-GEO

Ambientech: zientziak, osasuna eta ingugiroa



MATEMATIKA

Urrezko proportzioa



Irakasleen txokoa

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

Arretari buruzko artikulua



MEmakume zientzilariak

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko


EUSKERA

Filmeak euskaraz online



GAZTELANIA

Ortografía lantzeko jolasa



FRANÇAIS

Jeux online pour travailler des contenus de tous niveaux



Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dute eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!



Hiru urtekoak edo HH1 txokolatezko tarta egin dute, zeinen goxoa!

Bideoa

HH/ 2 urte

Haur hezkuntzan egun dibertigarri batzuk pasa zituzten Inka zibilizazioa ezagutzen eta itxiera emateko mozerrotu ziren haien traje tiki piekin.

Bideoa



Lau urteko gelan Kenia lantzen egon dira. Txikien gurasoek proiektu paregabeen parte hartu dute: Keniako etxe tipikoak eginez, jolas ezberdinak azalduz, haien bidaiak erakutsiz, maketak eginez ... Gainera, proiektuari amaiera emateko afrikarrez jantzi dira, aurpegia margotuta eta guzti!

Bideo honen bitartez ikusi dezakezue zein ondo pasatu duten: ikusi, ikusi!!!



Urtarrileko azken asteotan Mexiko herrialdea landu dute haur hezkuntzako lau urteko txikiek. Mexikarren bisita eta dena izan dute. Haiek beraien esperientziak azaldu dute bere hizkera goxoarekin, baita janari berria ere probatzeko aukera izan dute: GUAKAMOLEA NATXOEKIN!!

Bideoa

El 4 años / Cuentos

1.mailako ikasleek musikari buruzko proiektu bat aurrera eraman dute ingeleseko saioetan. Instrumentuen ezaugarriei buruz eta beraien kokapena orkestra batean ikasi dute. Baita musikari famatu batzuen lanetaz gozatu ere. Bukatzeko proiektua, Johan Strauss "Radetzky march" izeneko pieza famatua interpretatu zuten. Look at our little musicians!

Bideoa



LH1 The Orchestra



LH1-2 PUZZLEAK

1. eta 2. mailan informatikako saioetan puzzleak lantzen egon dira, horretarako www.jigsawplanet.com web orria erabili dute. Umeak oso gustura egon dira eta beste puzzle batzuk egiteaz gain beraienak egiteko aukera izan dute.

Hemen, gela bakoitzeko 4 puzzle desberdin, pieza kopuru eta forma ezberdinetan.

Puzzle 1

Puzzle 2

Puzzle 3

Puzzle 4

Musikak bere hizkuntza propioa izanda gure lehen hezkuntzako lehengo mailako neska-mutilek ikasi dute.

Bideoa



LH1 Doremi



LH1 COMIC

Ikastetxeko ikasgaiak transbertsal bilakatu. Hemen DBH 1.mailako talde baten komikia gorputz hezkuntzako edukiak ingelesez landuz era dibertigarri eta original batean.

Komikia



Etorkizunean gorputz hezkuntzako klaseetan ikusi, ikasi eta praktikatutako ariketak gogoratzeko era egoki bat azalpen bideo bat grabatzea da.

Bideoa

HF 4 ARIKETAK BIDEOAN

Erljioan baloreak lantzen dituzte gure lehen hezkuntzako 2.mailako ikasleek bai ipuinen bidez, bai jolasen bidez. Konfiantza eta adiskidetasuna landu dute jolas eta ipuin batzuekin. Bata bestearengan konfiantza izateko, lagun batek bestea gidatu behar izan zuen eta arbelean zegoen dianaren erdian borobil bat jartzen saiatu. Begiak itxita zituztela oso momentu dibertigarria pasa zuten.

Adiskidetasuna, ordea, ipuin baten bidez izan zen. Irakurri ondoren, bakoitzak bere eskua marraztu zuen orri zuri batean kolore eta iruditxoekin apainduta, baita beraien lagunen izenak idatzi zituzten eskuaren barrualdean.




LH2 ERLJIOA



La Salleren identitataren barnean besteak laguntzea da lehenengoetarikoa, hortaz PROYDE-PROEGA Gobernu Kanpoko Erakundearekin batera egiten du lan. Hemen lehen hezkuntzako ikasleek gaiari buruzko hausnarketa egin ostean sortu zuten kartela, PROEGaren astearen harira.

LH PROEGA ASTEA



LH 6.mailako ikasle bakoitzak beste ikaskide bati buruz gustuko dituen ezaugarri positiboak islatzeko aukera izan du bertsotan, HARA saioaren barruan.

Denek jaso dute merezi duten oparia!

LH6 HARA



Orrazkera koloretsuak plastikako eskulanetan. Gustu guztietarako ileak.




LH3 PLASTIKA




Begira ezazu zein apaingarri egin dituzten 2.mailako umeeek harriekin!! Kaktus koloretsuak.

LH 2 APAINGARRIAK

HARAre bidez barnekotasuna landuz, DBH 3.mailako ikasleek gogoeta bat egin zuten benetan gertatutako egoera larri batek nola sentiarazi zien. Txiribita lore-hosto baten itxura zuen paper batean, bakarka, haien sentazio eta emozioak plazaratuz. Mota honetako ariketak nerabeentzat lagungarriak dira haien emozioekin konektatzeko.



HARA 3



DBH 3.mailako ikasleak
Euskal literaturan
Adituenetik adituenak
Haien lanen barruan
Idazle garrantzitsuenak

Batzuk hizkuntzaren aktibista sutsuak, beste batzuk bertsolariak, idazleak... XVIII-XIX. mendeak euskal literaturarako garai garrantzitsuak izan ziren, gure DBH 3.mailako ikasleek kontatzen diguten bezala.

Bideoa

DBH3 EUSKARA



Hizkuntza bat ikasten gaudenean orduak eta orduak pasatzen ditugun tokiak deskribatzea ariketa interesgarria da. DBH 2.mailako hiru ikaslek haien logela aurkeztu digute frantses.

Chambre 1

Chambre 2

Chambre 3

FRANCAIS 2



Gure ikasleak oso trebeak dira teknologi berriekin baita ingelesarekin ere. Hemen gauza bien adibiderik esanguratsuena: DBH 2.mailako Pablo Gueretak kontatzen digu spotify-ko publizitatea nola kentzeko eman behar ditugun pausuak.

Bideoa

INGELES 2 SPOTIFY



DBH 1.mailako ikasleek laugarren hizkuntza bat hauta dezakete, eta egia esan asko ikasten dute ondo pasatzen duten bitartean.

Presentation 1

Presentation 2

Presentation 3

Presentation 4

FR1 PRÉSENTATIONS



Heziketa fisikoan ez dira kirol egokituaz ahazten, denon eskubidea baita kirola egitea. Hona hemen DBH 2.mailan egin duten infografieta bat.

Infografia

HF2 KIROL EGOKITUAK



Gaztelania ikasgaiko bigarren ebaluazioan irakurketa liburuaren aukeraketa libre da hemen bezalako booktuber entretenigarriak egiteko.

IRIA RODRIGUEZ

IZARO GARCIA

LEIRE VIEDMA

MARTA PASTRIAN

NAROA SILVESTRE

LENGUA 3 BOOKTUBER



Lehenengo ebaluazioko berritik erreportajearen garapenera. DBH 3.mailako ikasleen testu interesgarriak.

Erreportaia 1

Erreportaia 2

Erreportaia 3

Erreportaia 4

Erreportaia 5

Erreportaia 6

LENGUA 3 REPORTAJES



Gazteak haien ikasketa prozesuaren parte hartzaile aktiboak bilakatzen ditugunean, ikasitakoa askoz hobeto gogoratzen dute. Kasu honetan, gizarte ikasgaian, hainbestetan hain konplexua den politika ikusi dute eta proposatutako proiektu honengatik jolas bilakatu da DBH 3.mailako neska-mutilentzat. Ikasleak, gaur egungo politikarien azalean jarri dira, literalki.

Bildu

Podemos

PSOE

EAJ-PNV

PP

GIZARTE 3



Lehenaldiko aditzak ikasten hasten dira DBH 3.mailan. Passé composé menperatzea ezinbesteko pausua da hizkuntz eder hau barneratzeko. Begira zeinen ondo egiten duten gure ikasleek.

MARÍA LÓPEZ

VARINIA GONZÁLEZ

FR3 ANECDOTES



Euskal Kanten bideoklipak birmoldatuz oso momentu onak pasa dituzte 3. mailako neska-mutilek. Hizkuntzak lantzeko era bereziak eta, bide batez, gurea den folkloreak gozatzeko momentua.

Jon Turrado, Lucia Guerra, Yeray Davila, Endika Ratón, Eneko Adrián

Irene Ferrero, Nahia Montero, Nagore Pereiro, Jone Alustiza, Naroa Lamadrid

Varinia González, Aroa Fraile, Ainara Braña, Unai Urisabel, Sergio Ibañez

Maider Cruz, Neiva Maniega, June Rodríguez, Irene Aramburu

Aimar Bermejo, Iñaki Castillo, Iker Estomba

Asier Estalayo, Iker Hurtado, Iker Elgarresta, Ioritz Martín, Gorka Delgado

Euskal abestiak 3a eta 3b

Ikasleen txokoa

DBH 1.mailako korridoreetako leihoak dekoratuta daude gure ikasleek egindako origami tximeletekin. Koloretako paperekin, ikasleek haien sormenak hegan egin du plastikako ikasgaian.



PLASTIKA 1



Hizkuntzak ikastea eta egunerokotasunean erabiltzearen garrantzia jakina da eta La Sallen martxan jartzen dugu. Maila bakoitzean ahozmenak egiten dira, hemen, 3.mailako bakarrikzeta dibertigarri bat, gainera ikasleak, Ainara Brañak, etorkizunean ingeles irakaslea izan nahi du.

Bakarrikzeta

INGELES DBH3



Kahoot! ikasleen aplikazio gustokoenetariko bat da, haiek propio egindako galdeketa online bidez edukiak lantzen eta barneratzen dituzte. Erlojupekoa denez kriston lehia dago haien artean ahalik eta ondoen egiteko. Hemen, 3.mailako hiru adibide XVII. mendeko literatura lantzen dutenak, lengua eta literatura ikasgaian landuta.

Kahoot! 1

Kahoot! 2

Kahoot! 3

LENGUA 3



Abenduaren 12an eta 14an bigarren hezkuntzako ikasleek ordu guztietan zehar transbertsala den proiektu bat osatu dute taldeka.

Gaur egungo gizartearen behar ezberdinei erantzuten duten pertsonak behar dira, eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza honetan etorkizuneko errealitatera prestatuta egotera laguntzen ditugu ikasleak. Gaiari lotuta dauden ikasgaietan barrena garatzen dute proiektua eta maila bakoitzean lan ezberdin bat osatzen dute.

Lehenengo mailan gaztelania eta biologia kontutan harturik, argazki bilduma batekin bideo bat sortu dute gure ibaiari buruz, bere ibilbidearen eraldaketek gure herrietan nola eragin duten, uraren kalitatea, uholdeak... Bestalde, nerabezaroan eraldaketak geldiezinak dira eta

bakoitzak bere burua ezagutzen ikasten hasten da, garrantzitsua da, hortaz, ikasleak beraiei bidean laguntzen ditugu, eta hain zuzen ere, horretan datza hirugarren kurtsoko neska mutilek osatu duten lana. Test bat prestatu dute hiruna erantzun posibleekin, erantzunen kontaketa araberak gure izaeraren edo gure bizitzaren parte bat hobeto ezagutzeko aholku bilduma ere idatzi dute. Euskara, fisika eta kimika, biologia eta teknologia sustatuz.

Azkenik, laugarren mailakoekin kultura aniztasuna landu da. Jakinarazi zaie Urretxu-Zumarragako errealitate kulturala geroz eta anitzagoa dela eta hori dena antolatze elkarbizitza eta zabaltasuna landu duen egutegi bat ideiatu dute.

POI 1-2-3

"EZAGUTU OSPITALEA" EGITARAUA

Ospitaleak gizartearekin eta bereziki misioa betetzen duen inguruarekin, Debagoienako Gipuzkoako osasun-eremuan, daukan konpromisoa betetz, Ospitaleak atak zabaldu zizkien ikastegiei, ikastolei eta institutuei, buru-osasunarekin lehenengo harremana edukitzea ikasleentzat egokia zela iritzita. Horrela sortu zen "Ezagutu Ospitalea" egitaraua, eta urtean 400-450 ikasle inguruk hartzen du parte bertan.


Aldi honetan, ospitalera bisitan etorri diren ikasleak drogen kontsumoak pertsonen buru osasunean dituen eraginengatik erakutsitako interes bereziaz jabetu dira, haiengandik gero eta hurbilago dagoen arazoa delako seguru aski.

Gainera, kontuan hartu dugu 25 urtetik beherako pertsonen ospitaleratze kopurua nabarmen handitu

dela, iraupen luzeko kasuan eta patologia psikiatriko baten sintoma zehatzez gain substantzien kontsumo kaltegarriari dagokion sintomatologia ere (prozesu dualak) baduten diagnostiko klinikoekin.

Horren guztiaren ondorioz, ospitaleak baliatu egin ditu ikastetxeen bitartek substantzien kontsumoak duen garrantzia eta eraginaren gaineko prebentzio- eta kontzientziatze-lana egiteko. Aurretik azaldutako bi puntuak kontuan hartuta, informazio erreal, objektibo, eguneratu eta kontrastatua eskaini zuten DBHko 3 eta Dibertsifikazio ikasleentzat erakargarria eta irisgarria izango zen formatuarekin; hortaz, gehiegizko substantzien kontsumoan eta bereziki kanabisaren kontsumoan arreta jarri.

Hau da Dibertsifikazio gelan egindako hausnarketa, bisita egin ondoren.



POI 3 / DIVER



Gure ikaslerik nagusienak idatzitako testu interesgarrien adibide batzuk, gaztelania eta literatura arloan gizartearen ohiturei buruzkoak.


"Toritos" Carlos García

"España cañí"

Fernando Perez

Nekane Ibarzabal

LENGUA 4



La Salle Zumarragako DBH 4.mailako SEIN proiektua. Herriko dendei buruzko hausnarketaren bideoa.

Bideoa

SEIN 4

Bigarren mailako ikasleak bi egunetan zehar ibili ziren lan eta lan POIko proiektua aurrera eramateko. Lan honen helburua ingelesa, gaztelania eta teknologia ikasgaiak ardatz, ikastetxearentzako argiteria proposamena egin zuten. Taldeko lanean egon ziren topera. Hona hemen adibide bat.

TRABAJO

VIDEO EXPLICATIVO

POI 2



Egungo gizarteko erronketarako hurbiltze-lana egin dute dibertsifikazio klasean eta erakutsi nahi izan digute haien lanaren hasiera eta gogoeta. Proiektuari hasiera emateko, dokumental bat ikusi zuten: "Camino a la escuela" Pascal Plissonena. Oso gomendagarria, hunkigarri eta gaiari buruzko ondorioak ateratzeko bikaina.

Gaur egungo munduan, globalizazioaren eta migrazio-mugimenduen handitasunaren ondorioz, kulturen arteko harremanak areagotu egin dira izugarri. Hori dela eta, kulturen arteko bizikidetzak gure erronka nagusienetarikoa bat da, bai eta eztabaida-iturri ere. Aniztasun komunitatearen partaide aktiboa izatez gain, jarrera tolerantetara eta errespetuzkoak bultzatzen saiatuko gara.

Milurteko garapen helburuak Nazio Batuen Erakundearen kide diren 147 herrialdek proposatu zituzten, 2004an, eta munduan pobreziaren aurka egiteko tresna garrantzitsuenetako bat izan dira.

Aurrerapauso handiak eman dira proposatutako helburu askotan, baina oraindik ere ahalegin handia egin behar da alderdi batzuetan: gaur egun, oraindik ere munduan gose da zortzi pertsonatik bat.

POI / DIVER



Ane, Ivan, Markel eta Ibon

HAUR GIZENTASUNA


Gorputzean koipeen gehiegizko pilaketa Zergatik? → Elikadura txarra eta kirol gutxi

PREBENTZIOAK

- Ohitura osasuntsuak sustatu (eredua).
- Txikietatik gurasoek ondo jaten erakutsi.
- Janari naturalak erabili, gustatu ala ez.
- Janari orekatu bat zer den eta nola erabili esan.
- Erosketak egitea eraman.
- Sukaldatzen laguntzen utzi.
- Umeei poliki jaten erakutsi asetzeko.

GAIXOTASUNAK

- Gizentasuna gaixotasun bat da
- Presio arterial altua: Odol-presioa areagotzen lagundu.
- Bigarren motako diabetesa : Odoleko azukrea oso altua.
- Hiperkolesterolemia: Odoleko kolesterolaren igoera
- Minbiziak: Endometriokoa, bularrekoa, kolonekoa...
- Koronarioa: Bihotzaren arterien barruan sortutako plaka bat → bihotzeko arteriak itxi ditzazke eta bihotzeko bat eman.





EBAKUNTZAK

- Lehenengo umeari ohitura osasuntsuak erakusten saiatu behar gara, osasuntsu jaten eta heziketa fisiko baten bidez
- Azkeneko aukera → ebakuntza bariatrikoa
- Ebakuntzen ondoren gaixotasunak → Zauriak ixteko zailtasuna
- Ebakuntza askoz arrakastatsuagoa da ondoren dieta bat eta heziketa fisikoa gehitzen bazaio eta denbora luzerako den bizitza osasuntsua lortu nahi bada.

CODIGO NUTRISCORE

- Nustriscore Kodea, grafiiko bat da produktuaren kalitate nutrizionala ebaluatzeko bost koloreen bidez.
- Kontsumitzailei lagundu produktu hobereana hautatzen.
- Oso ikusgarria da eta produktuen aurrekoaldean dago.
- Espainiarentzat desegokiak → oliba-olioa. Produktu osasuntsua, baina koipe asko dituen, oso puntuazio gutxi.
- Gaizki-ulertuak sor ditzazke erosteko orduan.




DBH 4. mailako Ane Fernandezek, Ivan Callejek, Markel Alejandrok eta Ibon Pardok egiten dute panfleto eder hau SEIN elkarlaneko proiektuaren barnean.

Haur gizentasunari buruz hitz egin dute baita horren prebentzioari buruz. Benetan interesagarria!

SEIN 4

Familien Txokoa

Familiak eskola elkartearen beste zati garrantzitsu bat dira. Hona hemen beraiei eskainitako tartea.



Gogoeta - Orientazioa

AUKERA BERRIAK

Gauza berriren bat hasten dugun bakoitzean, itxaropenez betetzen gara. Aukera asko irekitzen zaizkigu eta dena hobea iruditzen zaigu: oinetako berriez hobeto ibiltzen gara, jantzi berriez galantagoak gara... eta altuagoak ere bagarela ematen du, ezta? Atzean gelditu da urte zaharra, bizi izandako guztiaz: onaz eta txarraz. Urte berriak mugagabea dirudi: hazi egingo gara, gauza berri asko ikasiko ditugu, lagun berriak egingo, leku berriak ezagutuko, ... 365 egun dira, 365 aukera. Nola aurki ditzakegu aukera horiek? Gutariko bakoitza berezia da: bere familia du, jarduera desberdinak egiten ditu, lagun desberdinak ditu eta, jakina, bizitzak aukera desberdinak eskaintzen dizkio. Hasteko, adi eta erne egon behar dugu: gure bost zentzumenek esna egon behar dute... eta gure bihotzak, batez ere gure bihotzak, zurt eta ernai egon behar du. Txikiak garen arren, ernai bagaude, egunero egiten ditugun gauzetan ikasteko aukera aurkituko dugu: ikasteko... modu osasungarrian janez eta ariketa fisikoa eginez gure gorputza zaintzen, eskolako lanak ahalik eta ondoen egiten, ikaskideetan adiskideak aurkitzen, gure gauzak, joko eta jolasak partekatzen, etxeko lanetan laguntzen, zaintzen gaituztenak (aitona-amonak batez ere) maitatzen eta errespetatzen,... Eta aukeren zerrendak ez du azkenik, izugarri luzatu baikaitezke. Garrantzitsuena aukerok aurkitzea eta aprobeztatzea da, urtea bukatzen denean, errepasoa egitean, "kanpotik eta barrutik zenbat hazi garen" ikusi eta harritzeko. Badakizue, lagunok, bizkortu ditzagun gure zentzumenak eta bihotza, aukera hauetatik bat bera ere ez galtzeko.

EKOLOGIA APUR BAT

Animalia-espezie asko galtzeko edo desagertzeko arriskuan daude; beste batzuk zientziak berauen berri izan orduko galtzen dira. Horrek galera handia dakarkio biodibertsitateari edo dibertsitate biologikoari eta, gainera, etorkizuneko belaunaldiak elikagairik gabe utzi ditzake. Espezie natural orok, bai landareak bai animaliak, bizitzeko, arerio naturaletatik babestu behar du; batez ere Lurreko harrapari nagusiagandik babestu behar du bere burua, hots, Gizakiagandik. Bestalde, hondamendi ekologikoei aurre egin behar die. Jakina, galtzen den espezie bakoitzak izadiaren edo naturaren oreka justua arriskuan jartzen du, ekosistema aldatzen duelako, hau da, bizitzeko bata bestearen beharrean dauden espezien kateari maila bat hausten diolako.

FIDATU BESTEENGAN

Txikiak zinetenean, ezin zenuten bakarrik ezer egin, baina hantxe zeuden amatxo, aitatxo, aiton-amonak... zuek zaintzeko eta zuei laguntzeko. Oinez hasi zinetenean, ziur nago maite zintuzten norbait zuen aurrean jartzen zela animatzeko. Eta gero, bizikletaz ibiltzen edo igerian egiten ikasi nahi izan zenutenean ere,

izango zenuten nork lagundu. Haur-eskolan eta ikastetxean ere aurkituko zenituzten gauza berriak egiten saiatzera animatzen zintuzteten pertsonak. Desafio edo erronka berri bat planteatzen dugunean, gerta daiteke eragozpen asko aurkitzea aurrean edo bidean. Ausartuko gara horietako batzuk gainditzeko, gure gaitasunetan fidatzen garelako, baina beste batzuk... Uff!... gaindiezinak irudituko zaizkigu. Hortxe daude maite gaituztenak, guri eskua luzatzeko, bidea errazteko eta edozertan laguntzeko. Badira bakarrean egin ezin diren gauzak ere. Pertsona batek, bakarrik, moto-lasterketa bat irabaz dezake, baina ezin du futbol- edo saski-baloi-partidurik irabazi. Eskolan ume batek puzzle bat laguntza barik egin dezake, baina ezin du domina egin edo ezin da gurpilean jolastu. Bizitzan, egoera askotan, besteen beharrean izango gara. Gertatuko zaigu ere gauza batzuk bakarrik egin ahal izan arren, lagunarekin errazago egingo ditugula. Esaterako, horma-irudi bat egin nahi badugu, batek bakarrik denbora asko beharko luke, denon artean laster bukatuko genuke. Bakoitzak bere parte edo atala ondo egiten badu, obra ikusgarria izango da! Besteengan fidatzeko unea da. Pertsonok, bai umeak bai nagusiak edo helduak, besteen beharrean gaude. Batzuetan, nahi dugun lekura iristeko, norbaitek laguntzea eta bultzadatxo bat ematea behar dugu. Beste batzuetan geu izaten gara

laguntzaile, gure lana eta ahalegina jartzen ditugunak,... eta denok batera, guztiok elkarrekin, ororen artean, urrutiago eta hobeto iritsiko gara. Ez ahaztu: zuk bakarrik ezin baduzu, beti dago hurrean fidatzeko norbait.

IKASTETXEA

Zure ikastetxe hau, ez da edonolako ikastetxea, ez da edozein ikastetxe, etxea ere baita. Maitasunezko adreiluz, asmo oneko zementuz eta, etxe on batek beti gorde behar duen beroa kanpora irten ez dadin, horma bereziz egindako etxea da. Ordu asko ematen ditugu etxe honetan, gure lagunekin, gure irakasleekin, gure gurasoekin eta beste umeen gurasoekin; beste era batera esateko, gure bigarren etxea da, edo, hobeto esteko, gure etxe fedez desberdina. Etxe honetako areto nagusian, garrantzitsuenean, futboleko joko dezakegu, nahi bezala dantza gaitezke,...; baina etxe honetan areto nagusi eta garrantzitsu horri atari/patio/jolasleku esaten zaio. Gelaz beteriko korridorea ere badugu, baina gela horiek, pertsona batentzat izan ordez, pertsona askorentzat dira. Gela horietan lagun asko ditugu, eguneroko gertaerak, gauza berriak, joko eta jolasak, ... partekatzen. Etxe honetan gurasoei irakasle (maisu eta andereño) esaten zaie. Gurasoek bezala, oso maite gaituzte, ondo zaintzen gaituzte eta gauza asko irakasten dizkigute. Bainugelak ere badaude etxe honetan, ondo zaindu eta garbi eduki behar ditugunak, ume askok erabiliko ditugulako. Gainera, etxe honetan ordenagailu-gela, ekintza-aretoa eta kapera edo elizatxoa daude. Azken honetan, Jesusekin elkartzeko eta zenbait egun berezi ospatzeko biltzen gara. Etxe hau La Salle-ren ametsa zen... eta zuk egunero laguntzen duzu ametsa gauzatzen. Proposamen bat egiten dizugu gaurko egunerako: erakutsi, nolabait, zure estimua ikaskideei, irakasleei, patioa garbitzen duten pertsonei, ...



Zaletasun bitxi baten istorioa

Anai Mikel Arbizu

Bostongo auzune batean bizi naiz duela hamahiru urte. Hemen jaio nintzen; Scolly plaza eta inguruak nire mundua dira. Normanek bere liburudendako kontsulta eta eskaera guztiak artatzen ditu; niretzat bigarren etxea bezala da. Aspaldian elkar ezagutzen dugu. Harekin irakurtzen ikasi nuen. Are gehiago, Globe egunkaria uzten dit. Nik ere kalean aurkitu nuen eraztuna eman nion.

Lehenengo solairuan dentista batek lan egiten du; hirugarrenean Jerry bizi da, idazlea. Azkenaldian behin baino gehiagotan izan naiz bere etxean. Paseo batzuk ere elkarrekin egin ditugu; tipo berezi samarra da; trakets janzten da baina ongi ematen dit. Ibiltzen garenean lekuak, eraikinak aurkitzen ditugu... Joan den neguan film bat ikustera joan ginen Rialtora, zinema oso zahar bat. "Helduentzat" zen baina sartzea lortu nuen.

Jerry-k akats bat dauka: whiskya gehiegi gustatzen zaio. Mozkortzen da. Baina bihotz onekoa da; zaborte gitik gauzak hartzen ditu, konpontzen ditu eta gero oparitzen ditu. Behin batean, piano jostailua ekarri zuen; ordu dezente pasatu zituen konpontzen eta azkenean eman zidan. Melodia batzuk jotzen ikasi dut. Entzuten didanean, hunkitzen da.

Orain arazo bat daukagu: etxe zaharrak bota nahi dituzte urbanizazio berria eraikitzeko. Ezer gabe geldituko ginateke. Norman negarrez ikusi dut honengatik eta neu ere triste jartzen naiz. Nora joango gara? Teatro Casino soilik geldituko dela zutik diote.

Ahaztuta neukan esatea nire izena "Firmin" dela; oro har, normala naiz. Bihurrikeria batzuk egin ditut, gauez alde egin dut kalean gora eta kalean behera ibiltzeko. Arriskuak izan ditut, baina beti

ongi atera naiz horietatik, katuak bezala "lau hankatan"... Ene ba! Barkatu, bi hankatan esan nahi nuen... Bueno, aski da; ezin dut gehiagotan gorde. Arratoi bat naiz... Bai, benetan diot; entzuten duzun bezala: ARRATOI BAT NAIZ...!! Ez nuen lehenago deskubritu nahi, bestela ez zenuen jarraituko irakurtzen eta. Baina haxe da egia: estoldetako arratoi bat.

Itxura mengela da, itsusia, barregarria, munstro ezaugarriak dituena; "zakur txiki bat bezalakoa untxien hortzekin". Ama alkoholiko baten hamahirugarren semea; gizajoak Norman liburudendaren arrakaletan erditu zuen. Papera esnea baino gehiago jaten genuen.

Berehala gelditu nintzen bakarrik. Ez nuen nire aita ezagutu; amak berehala abandonatu gintuen eta nire anaiak hortik barreiatu ziren; batzuetan haiekin egiten dut topo karriketan. Baina denda hartan irakurtzen ikasi nuen; apalategi guztietan ibiltzen nintzen eta ez zen gairik gelditzen ikertu gabe. Batik bat, gauez, jabeak itxi eta joaten zenean. Hasieran egunkaria soilik zen; gero, mota guztietako eleberriak. Jerry-rekin jazz-a ere entzuten nuen.

Alegia, endelegua arratoi-haginak baino gehiago zorroztu zitzaizkidan. Are gehiago, arratoi kultua naizela esango nuke, berezia, ezberdina... Are gehiago, behin batean, Jerry-ri liburuak saltzen lagundu nion merkealdietan; haren jakaren poltsikoan ezkutatuta eta, geroago, haren besagainean. Gizaki gehiagorekin laguntasuna ezartzen saiatu naiz, baina ezinezkoa izan zait. Ni ez naiz maskota tipikoa, gozoa eta txeratsua (Micky Mouse-ren antzera). Libre izan nahi dut!

Badakit kontaera triste samarra dela, baina nire

bizitza errepikatuko nuke. Hau guztiau kontatzen badut, duela egun gutxi Sam Savage hil zelako kontatzen dut. Bera izan zen nire historia idatzi zuena xehetasun guztiekin.; hari ere ez zitzaizkion ongi joan gauzak. Duela hamahiru urte eleberria argitaratu zuen (nik orain betetzen ditudanak); hark 66 zituen jada, oso nagusia. Bere literatura estreinaldia izan zen.

Umore handiko liburua dela diote, zoragarria, ulergarria, gizatasunez betea eta ustekabeek ere lekua omen dute; hitz batez, hunkigarria. Ale asko saldu ditu mundu osoan. Biziki pozten naiz. Bizia zor diot.

Orain bakarrik eta umezurtz nago. Jaio nintzenean hala izan nintzen, Bostonen; nire lagunek solairua aldatu dute eta orain, berriro, Sam-engatik. Haren heriotzaren ondoren, lerro batzuk preparatu nituen hiletan irakurtzeko, haren errautsen aitzinean. Bazter diskretu bat bilatu nuen eta maitasun handiz errezitatu nituen. Egingo nuke apustua gustatu zitzaiola.



GURASOEN TXOKOA

Ikastetxeko aldizkariaren ale bakoitza sortzen dugu ikasle eta irakaslegoaren parte hartze aktiboan, eskolan egindako lanaren emaitzak erakutsiz, eta ikaskuntza prozesua indartzeko era alternatiboak eskainiz.

Hala ere, gure komunitateko euskarri nagusietako bat falta da: familia.

Guraso bezala, anima zaitetze gure aldizkarian parte hartzera, bai erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak proposatuz, bai zuen hausnarketak, inpresioak idatziz guztiokin partekatzeko.

Gurekin harremanetan jar zaitzekete

aldizkaria@lasallezumarraga.eus

helbidea elektronikoan..

Merezi du

Ikasle ohiak praktikan

La Salle Zumarragako familia handi honen kide aktiboak dira ikasle ohiak eta aurten, hemen ikasitako hiru neska haien praktikaldia egiten ari dira, bakoitzak etapa batean gainera, beraz, hitza eman diegu haien esperientzia ikasle ohi eta orain irakasle formazioan bezala kontatzeko.

NEREA ALDANONDO

Kaixo!

Nerea Aldanondo naiz, 19 urte ditut eta Beasainen bizi naiz. La Salle San Jose ikastetxean burutu ditut nire Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak. 16 urtez bertan egon eta gero, oroitzapen izugarriak gordetzen ditut.

Batxilergoa egitera Beasaingo Institutu Publikora joan nintzen, La Salle San Josen ez baitzuten hori eskaintzen. Hasieran beldur pixka bat nuen, metodologia anitzak, lagun berriak, irakasle ezberdinak... baina tira, bizitzan sarritan egoten dira aldaketak eta horietara moldatzen ere ikasi behar dugula erakutsi digute! Beraz, beldurrak alde batera utzi eta inongo arazorik gabe bi urteak gainditu nituen. Oso urte intentsuak izan zirela esan beharra dut, eta era berean, ahaztezinak. Batxilergoa amaitu bezain laster, Deustuko Unibertsitatean Magisteritza+CafYd-eko gradu bikoitza hasi nuen. Bigarren kurtsoa kurtsatzen ari naiz, zehazki bigarren hiru hilabetearen hasieran gaude, eta lehen praktikaldia burutzen ari naiz, La Salle Legazpi ikastolan.

Aukeraketa zertxobait zaila izan dela aitortu beharra dut. Banekien La Salle sektoreko ikastetxe batean nahi nituela egin praktikak, herritik kanpo burutu nahi nituen, baina Beasaindik kanpo ez nituen beste eskolak ongi ezagutzen eta ez nengoen ziur. Azkenik, Zumarragako ikastetxearengandik dekantatu nintzen eta aukera paregabea egin dudalakoan nago.

Txiki-txikitatik argi izan dut andereñoa izan nahi nuela, 'andereño Nerea', hain zuzen ere. Betidanik gustatu izan zait pertsonekin kontaktuan egotea, batez ere haurrekin, lasaitasuna eta erosotasuna transmititzen baitidate.

Otsailaren 7an, Zumarragako ikastetxera iritsi nintzenean, urduritasuna nabaria zen, ez nekielako zerekin aurkituko nintzen. Koordinatzaileak, Ainhoa Elorzak, sarrera paregabea egin zidan. Ainhoa, orain dela 10 urte ezagutu nuen, nire begiralea izan zen

La Sallek antolatzen dituen udalekuetan, San Asension, hain zuzen ere. Irakasle gelan nire begiralea izandakoaren ondoan esertzeak beldurtu egiten ninduen. Hala ere, segituan etxean egongo banintz bezala sentitu nintzen. Lehenengo momentutik irakasleen gertutasuna izugarrikoa izan da, eta hori guztiz eskertzekoa dela uste dut. Ondoren, 6 aste hauetan izango nuen tutora aurkeztu zidaten, Amaia Echaniz, eta ezin hobe nagoela azpimarratu nahiko nuke. Lehen Hezkuntzako 3.B gelan nago eta 20 ikasle osatzen duten, haien arteko aniztasuna izugarria da- Beti izan dut argi ume bakoitza mundu bat dela, eta praktikan hori baieztatu dut. 20 altxor txiki, lehenengo momentutik nire bihotza konkistatu dutenak.

Amaiaz gain, beste irakasle batzuk ere ikasgelatik pasatzen dira, Gaztelania, Erlijio, Gorputz Hezkuntza, etab... ikasgaiak ematera; hala nola, Andoni Ruiz de Eguilaz, Judith Calvo, Aintzane Sanz, Jon Agirrezabal... Aipagarria iruditzen zait, curriculumak zehazten dituen ezagutzak lantzeaz gain, baloreei ematen dieten garrantzia. Argi dago eskolaren helburua zein den, akademikoki ahalik eta gehien ikasteaz gain, ikasleak egunerokotasunean pertsona onak izateko baloreak bereganatzea. Erabiltzen duten metodologia guztiz positiboa iruditzen zait; teknologia berriak erabiltzen dituzte, talde lanean aritzen dira eta era berean, ikasleen parte hartze aktiboa sustatzen dute uneoro.

Praktikaldiko hirugarren astean nago, eta lehen eguna bezain zoragarri zein hunkigarria izaten ari da. Gauetan, ohera sartzen naizenean, egunean bizitako bizipenak gogorarazten ditut, eta egunero ondorio berdinerantz heltzen naiz: urteen poderioz, munduan izugarriko aldaketak eman direla eta hezkuntza ere ez dela atzean geratu. Ikuspuntu aldaketa bat suposatzen dit honek, ikasle bezala begiratzetik, ikasleen bidelagun baten begiradatik ikustera. Irakasle izatea ez baita soilik ezagutzak transmititzea, haratago begiratzeko baizik.

Bukatu hasi nintzen tokian

ANDREA MARTI

Bi urte nituenean, nire gurasoek erabaki zuten ikastetxerik egokiena ni hazteko eta hezteko La Salle Legazpi ikastetxea izango zela. Bertan ikasi nuen 16 urte nituen arte, hau da, derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu nuen arte. Esan dezaket ia nire bizi guztia ikastetxe honetan pasa dudala. Aurten, Haur Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz, izan ere, laugarren urtea ikasten nago eta argi nuen praktikak nire eskola izan zen hartan egin nahi nituela eta hala izan da.

Egia esan oso oroitzapen onak ditut eskolan, baina Haur Hezkuntzako gauza askotaz ez naiz akordatzeko. Hala ere, nire praktiketako lehenengo egunean atetik sartu bezain laster gauza askotaz gogoratu nintzen. Lehen Hezkuntzan, baditut oso oroitzapen politak. Baina, benetan gogoratzen ditudan gauza gehienak azkeneko urteetan gertatutakoak dira.

Eskola ez da oroitzapenak ekarri dizkidan gauza bakarra, nire irakasleak izan zirenak berriro ikustea eta hauetako batzuekin lan

egitea asko gustatu zait. Esan beharra daukat pena eman didala irakasle batzuk ez ikustea, batzuekin ez dudalako kointziditu eta beste batzuk jubilatutako daudelako jada.

Azkeneko praktikaldi honetan lau urteko gelan egotea egokitu zait. Gehien bat Amaia izan da nire eredu hiru hilabete hauetan eta esan beharra daukat asko ikasi dudala eta oso gustura egon naizela. Umeekin baita primeran konpondu naiz eta badakit faltan botako ditudala.

Haur Hezkuntzako gradua hasi baino lehen argi neukan handitan irakaslea izan nahi nuela eta hori bidean izan ditudan irakasleei esker izan da. Beraiek transmititu didate zein garrantzitsua den irakastea eta hain ezinbestekoak diren baloreak helaraztea. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet hain polita den irakaskuntzaren munduaren inguruan interesa pizteagatik eta praktikak eskolan egiteko aukera emateagatik. Esan dezaket, nire ikasketak bukatuko ditudala ikasten hasi nintzen toki berdinean.

ARANTZAZU CALABOR

Gure egunerokoan mota guztietako erabakiak hartzen ditugu: zer soineko erosi, zer ikasi, gure seme- alabak zein eskolara eramane... Baina ez gara konturatzen gure ingurukoek hartzen dituzten erabakiak gure etorkizunean zenbateko eragina izan dezaket.

Nire ikasle bezalako urteak igaro nituen eskolan zeuden irakasleei esker, irakaskuntzak duen garrantziaz jabetu nintzen. Horren ondorioz, irakasle izateko erabakia hartu nuen.

Gure bizitzan zehar eman behar ditugun pausoak markatuta daudela uste dugu, baina denbora aurrera joan ahala, erabakiak hartzeko beharra azaltzen zaigu berriro ere. Eta, konturatu gabe, nire gradu amaierako praktikak zein eskolatan egin nahi nituen erabakiaren aurrean aurkitu nintzen. Horrela, La Salle Legazpira joatea erabaki nuen eta harrotasunez esan dezaket ez naizela erabaki horretaz damutzen.

Irakaskuntzaren bidea ibiltzeak zailtasun handiak ekar ditzake, horregatik, poliki- poliki eta lasaitasun handiz eraiki behar dugun bidea da. Hauxe da nire egonaldian ikasitako gauzarik garrantzitsuenetariko bat, halaber, gauzak ez direla antolatu bezala ateratzen, gauzak ez direla diruditen bezain zoragarriak,



edota, askotan, aintzat ez hartutako aldaketak beharrezkoak direla, baina hauek ez direla beti zertan okerrerako erabakiak izan behar.



Horrela, gure lanaren benetako erronka hor dagoela konturatu naiz: behatu, ikasi eta "berrikasi", hortaz, larritasunezko uneei eta estutasunei aurre egiteko gai izan gaitezen, nahiz eta kezka momentu hauek miresten eta baloratzen zaituzten pertsonengandik jasotako irribarre edo besarkada sinple batekin konpentsatzen diren.

Honako hauek dira La Sallen aurkitu ditudan pertsonak, uneoro laguntzen direnak eta momentu zailetan indartzen direnak familia handi bat sortuz. Eskertzekoa da familia honengandik ikasitako guztia, baita eraikin honetan bizitako momentu on guztiak ere. Baina La Salle ez da soilik eraikin bat, bere esanahi haratago doa: maitasuna, babesa, bultzada, sostengua, familia...

Esandako guztiarengatik, nire praktiken parte izan diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Berezik, eskerrak eman nahi dizkiot Eneritzi, beregandik hainbeste ikasteko aukera emateagatik, eta nire ikasleei, momentu bakoitza hain berezia egiteagatik. Mila esker guztioi hiru hilabete hauek paregabeak eta magikoak egiteagatik.









LA SALLEtik – UGLE Erako bidea

Ondorengo ikasleek LaSallen ikasi eta gero,
gaur egun UGLE eskolan ikasten ari dira.
Irakur ezazu beraien esperientzia!!



IKER AGUIRRE

Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
16 urte

Hasieratik banekien zer batxilergo mota egin nahi nuen, baina non egingo nuen erabakitzea asko kostatu zitzaidan. Azken momentuan nire ikasketak UGLEn egitea erabaki nuen, gehien bat gertutasuna eta hemen egondako ikasleek esandakoarengatik. Gizarte zientzien batxilergoa aukeratu nuen, hau bukatzerakoan, egin nahi ditudan ikasketekin bat datorrelako eta etorkizunera begira onuragarria izan daitekelako. Orain arte, argi daukat erabaki zuzena hartu dudala.



ELENE LETE

Batxilergo Teknologikoa
16 urte


Kaixo Elene Lete Para naiz, batxilergoa egiten ari naiz teknologia adarretik. Ugle eskolara etortzeko lau arrazoik bultzatu ninduten: 1/ nire ahizpak hemen ikasi zuen eta oso erreferentzi positiboak eman zizkidan; 2/ Eskola Zumarragan bertan egotea abantaila da afizioekin jarraitu ahal izateko; 3/ eskolatik pasa diran lagunak beti hitz egin didate ondo eskolataz eta 4/ La Salle – Ugle artean beti ikusi izan dut elkartasun eta lotura handi bat.



AITOR SÁNCHEZ

Batxilergo Zientifikoa
16 urte

Hasieratik argi nuen batxilergo zientifikoa izango zela nire aukera. Eskola desberdinak ikusi eta gero, ikasi nahi nuen batxilergo motarako, Uglek eskaintzen dituen instalakuntzak oso egokiak iruditu zitzaizkidan; adibidez, eskolak duen laborategia oso egokia da biologiako klaseetarako. Horretaz gain, UGLE aukeratzeko garaian, gertutasun fisikoak ere asko lagundu ninduen; herrian bertan egotea abantaila nabarmena da zure denbora librean hobe kudeatu eta aprobetxatzeko.



RUBEN DARIO IBÁÑEZ

Erdi Maila: Mantentze
- Lan Elektromekanikoa - 16 urte

Momentu honetan erdi maila bat ikasten ari naiz; zehazki, Mantentze Lan Elektromekanikoa. Nire kasuan erabakia hartzea oso erraza izan zen. Hasiera batetik argi neukan UGLE eskolara etorriko nintzela. Mantentze lanak beti izan ditut gustoko eta ikasketa hoiek herrian bertan egotea perfektua izan da niretzat. Eskolak lehen momentutik komodidade asko eman dizkit klaseetako. Bi ebaluaketa daramatzat eskolan eta ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Ikasle-irakasle arteko giro onak atentzio berezia deitu dit.



→ urola garaiko lanbide eskola

Beloki hiribidea z/g

ZUMARRAGA

943 725 477

www.ugleskola.org



HEZKUNTZA ARAUTUAN:

- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAN:

- HOBETUZeko IKASTAROAK
- LANBIDEko IKASATAROAK



ZERKI

KIROL ETA AISIALDI ZERBITZUAK

**Eskola Kirola
Puzgarriak
Apar festak**

...

**Zure ikastetxearen
neurrira!**